

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko irailak 25 • 1156. zenbakia

MENDE OSO BAT HERRI BATEN IZAERA JOSTEN



sukaldeak & barne diseinua

www.urrategiinteriorismo.com
Arragueta 27 Arretxe 9
20600 Eibar 20730 Azpeitia


URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua
dica

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ
Instalakuntzak eta konponketak
antena

Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac **trinmer**
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com

**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA

egoluz ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac 677 51 24 62
ego.kuz@hotmail.com 630 95 73 45
943 20 06 97

THELECER 24 orduko
urgentziak

TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

610 532 922 www.thelecer.com

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabiloia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ARKITEKTOAK

olaiz etxeberria martinez **ARKITEKTOA**
olaiz@arquitectura-el.com Tel. 649978832

estudio etxeberria

arkitektura, ingurua eta pertsonak
arabiar eta ozeaneko kudeaketa teknikoak

Makola, 7. onea
Tel./Fax 943 30 21 12 www.arquitectura-el.com

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INGURUEN
MANTENUA, ORE
ERREKATZUA

E.I.T.

ENPLAZAMEN
TERMINAZIOA

ENPLAZAMEN
TERMINAZIOA

AJT ZIRKULAZIO S.L.
Barrena, 6 - Ibañeta esk.

KRISTALAK

ACHA Kristaldogia

TELURERAK ERREKATZU, 3-
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@kristalriaacha.com **ERAKUSKETA**
eta faxa: 943 203 903 **Arkitzanteko Zebian**

AROTZAK

**USOBIAGA-OTERMIN
ARKITEKTOAK**

Uztage Plaza 11 Eibar info@usoerbiketok.com
tel. 943200036 www.usoerbiketok.com

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARDO, 15 - ELGOIBAR -
605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

AROTZAK

ulmar
S.L.

aluminiozko eta PVC-ko arotzedia
baila toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 07 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
CIDARRAN, Oteku 20an (Tel. 943 12 74 01)

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztiak
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 002
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

**Oharra**

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

“2008an Chicagon izan nintzen Obamaren hauteskunde gauaren berri ematen. Hunkitu egin ninduen eta The New York Times berak ere titulatu zuen esanez amaitu zela arrazaren gatazka AEBetan, baina ikusi da promesak ez zirela bete, eta gatazka hori berriro azaleratu dela. Are gehiago: Trump Obamaren ondorio izan da. AEBetako gehiengo soziala, %72 inguru, zuria da; haien artean gehienak kontserbadoreak eta kristauak. Eta horiengan eragin zuen zirkuitulaburra Obamaren presidentetzak. Haren politikek populazioaren zati handi bat alienatu egin zuten; Obamare delakoak, adibidez. Populazio zati kontserbadoreak hori erasobaten modura hartu zuen; hori ulertu gabe, ezin da ulertu Trump. Globalizazioak eragindako desorekek populazio zuri pobregoiari ere eragin diote, eta itsaso horretan arrantzale bikaina da Trump; horregatik berreskuratu du beldurraren diskurtsoa”.

MIKEL REPARAZ, kazetaria

"Bitxiki, badira gaztaroan iraultzaile izan eta helduaroan edo zahartzaroan mistiko bihurtu direnak. Eta ez da harritzekoa. Bate-tik, heriotzaren hurbiltasunak berez eramaten zaituelako naturaz haragoko kontuez pentsatzera. Bestetik, beren burua iraultzaile-tzat duten batzuk horren astunak, errepikakorak eta zurrinak izatera hel daitezke, ezen haiengandik urruntzeagatik berriro itzultzen baitzara Jainkoaren besoetara, haurtzaroko mundura, bake apur batez gozatzera bederen. Barne bakea bilatzeak atzerakoia irudi lezake, eta duela 60 urteko hizkera fosilizatuarekin jarraitzeak, berriz, modernoa. Nola begiratzen den! Isaiah Berlinek azeri emea eta triku bereizten zituen jakintzari dagokionez: azeriak gauza asko dakizki, eta trikuak gauza bakarra, baina oso garrantzitsua. Eta badira, triku bat direla uste arren, azeri eme direnak”.

ARITZ GORROTXATEGI, zutabegilea**Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera**

NAHASTABAR.-Nahaste-borraste, iskanbila, zalaparta. “Kale kantoi horretan goizaldeko bostetatik aurrera nahastabarra beti”.

NAHASTAU.-Gauza desberdinak elkarrekin batu. “Olixua ta binagria ez ibilli alperrik nahastatzen, ez dira alkartuko”.



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Malen Jainaga eta
Malen Illarramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Juan Andres Argoitia eta
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Itziar Albizu eta Belen Ulazia
TELFONOAK
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
ALFA
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
7.868 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





Energia Argitu tailerrak emango dituzte urrian

>>> Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, Energia Argitu programaren barruan eta Eibarko Udalarekin lankidetzan, energia-kontsumoaren murrizketa eta eraginkortasun energetikoa handitzea helburu dituzten hainbat tailer antolatu ditu urrirako. Lehena kontsumo elektrikoei buruzko datuak (fakturak) nola irakurri ikasi nahi dutenentzat emango dute, datorren asteko egunean (urriak 1), 18:30ean Untzagako jubilatuen etxean, eta parte hartu nahi dutenek irailaren 28a baino lehen eman beharko dute izena, argitu@gipuzkoa.eus helbidera mezua idatzita edo 943 11 29 48 telefono zenbakira deituta. Horrez gain, urriaren 8, 15, 22 eta 29an ere eskainiko dituzte Energia Argitu tailerrak. Informazio gehiagorako www.argitu.eus helbidean begiratu daiteke.

Armeria Eskolako Elkartearen batzarra

>>> Martxoan Armeria Eskolako Elkarteko Zuzendaritza Batzardeak Batzar Orokorra atzeratzea erabaki zuen, COVID-19aren ondorioz. Une honetan gertatzen ari den bilakaera ikusita, batzarra urriaren 2an egingo da, 12:00etan

hasita eta formatu digitalean. Batzarrean 2019ko proiektuak azaldu eta 2020an aurrera eramaten ari direnak aurkeztuko dituzte. Parte hartu ahal izateko, 943 20 32 44 telefonora deitu edo elkartea@armeriaeskola.eus helbidera idatzi daiteke.

Errebal kalea konpontzeko lanen bigarren zatiari ekin diote

>>> Aste honetan hasi dute Errebal kalea berrurbanizatzeko lanen bigarren fasea. Julian Etxeberria eta San Agustin kaleen arteko tartea berritu eta gero, orain Coliseo parean da goen Merkatu kaletik Ibaruru-

tzeraino doan zatia konponduko dute: besteak beste, espaloia zabaldu eta hobetuko dute eta, bide batez, saneamendu-sarea berrituko da eta Ibarkurutzeko iturria konpondu eta berriztuko dute.



Txistulariek kalejira egingo dute domekan

>>> Usartza Txistulari Taldekoak kalejira irtengo dira domekan. Oraingo honetan Urki auzoan ibiliko dira, 11:00etatik aurrera eta, besteak beste, honako pieza hauek joko dituzte: "Otxoki", "Imotz", "Saltzen saltzen", "Pittin", "Tantanbiruntena", "Pote dantza", "Txanbo", "Txanbolin", "Jeolimo" eta "Andre Madalen". Gure herriko txistulariek gogotsu hasi dute ikasturtea eta, pandemiaren aurretik egiten zuten bezala, hamabostean behin kalejira egiten jarraituko dute.



eskolara buelta?

elite
EQUIPAMIENTO DE OFICINAS

Eskola-materiala, papertegia, motxilak, idazmahaiak, aukiak...

BEHAR DUZUN GUZTIA / MARKA ONENAK KALITATE ETA ZERBITZU BIKAINENA

Isasi, 29 943-200030 elite@eliteoficinas.es www.eliteoficinas.es



AUTUAN

AZKEN OSTIRALA

Hileroko martxan, gaur iraileko azken barixakua dela-eta, Eibarko Sareren eskutik, 19:30ean euskal presoek eskubideen aldeko kontzentrazioa egingo da Untzagan eta eibartar guztiak bat egitera gonbidatu nahi dituzte.

EIBARKO DENDARIEN KANPAINA BERRIA

Irailaren 20tik urriaren 20ra bitartean Eibarko Dendarien Elkarteko dendetan zerbait erosi eta Eibar txartelarekin ordainduz gero, saria irabazteko aukera izango dute bezeroek, kanpainarekin bat egin duten ostalaritza-establezimenduetan gastatzeko 30 euroko 195 bonu oparitzeko zozketa egingo dute eta.



Errebal berrirako asmoek oposizioa haserretu dute

>>> Gauregun Merkatu Plazan dauden saltoki guztiak Errebal berrian tokia izateko "mekanismoak bideratzea" exijitu dio EAJ-PNVren udal taldeak PSE-EEren udal gobernuari, eraikinerako aurreikusten dituen erabileren berri izan eta gero. Azpimarratu dutenez, gaur egun Merkatu Plazan martxan dauden saltoki guztiarentzat

tokirik egon ezean, "ondorio politikoak" egongo dira. Jeltzaileen berbetan, "ozpinetakoak saltzeko postu bat izango da berritasun nagusia. Gainera arraindegibakarrarentzat tokia aurreikusi dute, nahiz eta gaur egun Rialton bi egon". Gainera, udal gobernuaren planak baserriarrak bakarrik lagatzen dituela irizten diote. Ildo beretik,

EH Bilduko ordezkariak "Errebalerako PSOEk duen proposamena" ez dutela onartuko diote, "eta zonalde kulturalari dagokionez ere, ez dugu onartuko parte-hartze ariketetan ateratako ondorioak leuntzea. Rialtoko "behin-behineko" plazan dauden baserriar guztiak izan beharko dute lekua Errebal berrian". Horrez gain, dinamizatzaile sozio-kulturala kontratatzeke premia ikusten dute. Eta Errebal Plataformakoek ere oraingo postu guztiak lehenasuna izatea exijitu dute.

Gabonetako OTARRA

1.500 €ko balioa duen Otarra
(1.000€ produktuetan eta 500€ko eraldatzearekin)

Prezioa: 1€
Zibk:

ETA
Euskara Elkartea

ETA
Euskara Elkartea

— salmenta lekuak —

- ARRIOLA PRENTSA
- ECHETTO PRENTSA
- ARRIAUNDI OKINDEGIA
- OTEGI HARATEGIA
- MARIA OSPITXAL
- AMETSA TABERNA
- GURIDI TABERNA
- IZADI LORADENDA

FUNEUSKADI
Grupo Asistia

FUNERARIA MUGICA
Funeruskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27


Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20

Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

Kalitatezko zerbitzu publikoak eskatzeko kontzentrazioa egin dute Egogain gerontologikoan

>>> Egogain gerontologikoko langileek, senideek, pentsiodunek, Nalua talde feministakoek eta beste askok kontzentrazioa egin zuten eguaztenean, kalitatezko zerbitzu publikoak eta arreta duina eskatzeko. “Indar metaketa ezinbestekoa da pertsona ardatz duen eredu lortzeko, kapitalak banatuta nahi gaituelako”, diote. Egogaineko langileek bi urte daramatzate Foru Aldundiak ezarritako murrizketen aurka borrokan, baina euren eskaerei entzungor egin diela diote. EAJri eta PSEri “kanpora begirako marketina” egiteari lagatzeko eta “langileek merezi dituzten baldintza



duinak eta pertsonen behar eta merezi duten arreta” izateko neurriak hartzeko eskatu diete.

Zaldibar Argitu plataformak bilera deitu du urriaren 14rako

>>> Udako etenaldia eta gero, Zaldibar Argitu herri-plataformako kideek aste honetan bilera egin dute, aurrera begirako asmoak lantzeko. Bertan esandakoaren arabera, Joaquin Beltranen gorpua aurkitu bitartean kaleko dinamikarekin jarraitzea da asmoa eta, horren harira, hurrengo mobilizazioa urriaren 3rako (zapatua) deitu dute, 18:00etan Untzagatik abiatuta, Zaldibarko zaborte-giko ezbeharrak izan zela 8 hilabete beteko diren egunaren atarian. Horrez gain, plataformako kideek aurreratu zuten, Durangoko epaitegian herri-akusazio modura aurkezteko lanketa egiten aritu dira eta egun gutxi barru emango dituzte ezagutzera horren nondik norakoak. Gaineratu zuten, hemendik aurrera egin beha-



rrekoak arrakastaz burutu ahal izateko, oso garrantzitsua da herrian plataforma aktiboa izatea eta, horregatik, herritarrak animatu nahi dituzte hurrengo bilera irekira joateko: urriaren 14an izango da, 19:00etan Arrate Kultur Elkartearen lokalean. Bide batez, banderolaketa txapak erosi nahi izanez gero, Ez Dok tabernan salgai daudela gogorarazi nahi izan dute.

LANGILEAK BEHAR DITUZTE

dentistak / higienistak / laguntzaileak / ...

Deitu: 943-700082

EIBARKO HORTZ-KLINIKA BATEAN



Gipuzkoako Erizaintza Elkargoa ikastetxeen esanetara ipini da

>>> Osasunerako heziketan duen eginkizunaren barruan, eta Gipuzkoan diharduten 5.000 erizain baino gehiago ordezkatzan dituen irabazi asmorik gabeko erakundea den neurrian, Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofizialak (COEGI) bere burua eskaini du, probintzia osoko ikastetxe eta guraso elkarten esanetara ipinita. Adierazi dutenez, eskolako osasunari lotutako edozein zalantza, kontsulta edo eskariri erantzuteko prest daude. Asmo horrekin, eurekin kontaktuan jartzeko bideak jaki-

narazi dituzte: 943 445 672 telefono zenbakia, info@coegi.org posta elektronikoa eta 617 658 141 WhatsApp zenbakia. Horrez gain, sare sozialen bitartez ere jar daiteke eurekin kontaktuan. Horrekin batera, COEGIk hainbat material informatibo (infografia, bideo edo gida moduan) helarazi dizkie ikastetxeei, eskolara itzultzeko garaian COVID-19a prebenitzeko gomendioekin. Halaber, Elkargoak "Eskola Osasuna" lantzen duen espazio berri bat prestatu du www.coegi.org webgunean.

#MarketingDay ekitaldia antolatu du Ekingunek irailaren 30erako

>>> Ekingune elkarteak #MarketingDay ekitaldiaren hirugarren edizioa antolatu du irailaren 30erako, 10:00etan. Antolatzaileek diotenez, "aurtengoan, Marketin Digitalaren inguruko mitoak desegiteko asmoa dugu. Bizi dugun egoera berezia dela-eta, ekitaldi mistoa egingo dugu: presentziala gure bazkideentzat eta streaming bidez parte hartu nahi duten gainerakoentzat". Lucas Aisa hizlariak (Calvoconbarba - CeConBe) ekingo dio saioari. Haren hitzaldiaren ostean, mahai-ingurua hasiko da, "sektoreko hainbat pertsona aipa-

garrrik euren ikuspegia, iritzia eta esperientzia guztiokin partekatzeke". Horretarako Iñigo Usobiaga (Grulla Armas), Charlene Lidyart (El Casco), Ana Carolina Lodeiro (Soma-be), Unai Artetxe (S.D.Eibar) eta Lucas Aisa bera gonbidatu dituzte.

Streaming bidez parte hartzeko interesa duenak <https://ekingune.com> helbidera jo dezake eta bertan aurkituko du izena emateko formularioa, baita saioaren inguruko informazioa ere. Behin inprimakia beteta, emailez jasoko da ekitaldian parte hartzeko lotura.



zarelakogara

Izen-abizenak _____ Helbidea _____
 Tfnoa / emaila _____ NAN _____
 Jaiotze data _____ K/K zenbakia _____

Bazkietza edo ekarpenak egiteko

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Urteak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuak	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

* Urteko kopuruak dira

...eta kitto!
Euskara Elkarte

Urkizu 11
943 20 09 18 - 943 20 67 76
elkarte@etakitto.eus



1



2

Orain dela urtebe horrelakoak ginen

Oier Areitio motorzalea hil zen Trabakuan izandako istripuan. Daniel eta Ainize Txopitearen arteko topaketa inauguratu zuten Portalean. Ion Fiz diseinatzaileak kolekzioa saltzeko "pop-upa" antolatu zuen. Casino Artistako billar jokalariek dominak irabazi zituzten Gipuzkoako txapelketan. Jokin Bergarak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan hartu zuen parte. Zuzeneko musikak bete zituen herriko kaleak Karrikan ekimenari esker. 53 parte-hartzaile izan zituen XX. Arratera rollerski goerak. Bi unitate soziosanitario zabaldu zituzten Eibar Ospitalean, Aldundiak kudeatuta. Berbetan mintzapraktika programa kalera irten zen Eibarko Bizikleta Plazan egindako jaiarekin.

1- EMGE-k antolatutako Karrikan ekimenak asteburu osoa hartu zuen. 2- Txopitea aita eta alabaren ehun lan ikusi ahal izan ziren espazio berean. 3- Fiz diseinatzaileak behin-behineko denda jarri zuen T. Etxebarrian. 4- Kalean ere euskeraz gozatzeko aukera eskaini zuen Berbetan programaren aurkezpenak. 5- Jokin Bergara finalzortzirenetara heldu zen probintziakoan. 6- Deporrek rollerski goeraren hogeigarren edizioa antolatu zuen.



3



4



5



6

Debabarreneko IX. Aste Ekologikoa

Urriaren 3an hasi eta 9ra arte iraungo du Eibarko Udalak, Biolurrek eta Debemenek elkarlanean antolatutako Aste Ekologikoaren edizio berriak. Urriko lehenengoko zapatuan hasiko da Astea, Txaltxa Zelaian egingo duten azokarekin. Hurrengo egunetan Gutizi Ekologikoen Ibilbidea izango da indarrean, ostalariekin lotutako ekimenarekin. Amaitzeko, bestalde, hilaren 9an (barixakua) amaituko da Astea Deban antolatuko diren ekimenekin.

Eibarko ostalariekin elkarlanean antolatu duten Gutizi Ekologikoen Ibilbidea azpimarratu dezakegu bereziki Debabarreneko IX. Aste Ekologiko honetan. Antolatzailerik diotenez, "ekimen honen ostalaritzarekin zubiak eraiki, eta baserriar ekologikoen produktuak ikustaraziz, horrek benetan duen balioa kaleratu nahi dugu". 17 taberna izango dira parte hartzen aurtengo proiektuan eta bertan eskualdeko osagai ekologikoen egindako pintxoak eta Euskal Herriko Biba Ardoak koopera-

tibako ardo ekologikoa salduko dute 2 eurotan. Produktu horiek dastatzeko aukera honako tabernetan izango da: Albert, Arkupe, Baisi, Baratze Gourmet, Birjiñape Berria, Bossa, Chic, Kili Kili, Kontent, Koskor, Kultu, Laurel, O'Jays, Paulaner, Slow, Trinkete eta Txoko.

Urriaren 3an, eta Asteari hasiera emateko, Txaltxa Zelaiko plazak hartuko du azoka ekologikoa. Udalak, Biolurrek eta Debemenek, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoen Kontseiluaren laguntzarekin, prestatutako azoka



hori 10:00etan hasiko da eta 14:00etan amaituko. Hainbat lekutatik etorritako ekoizleak izango dira, "modu ekologikoan zainduta eta era artisaun elaboratutako produktuekin". Barazkiak, fruta, ogia, gazta, eztiak, olioak, mermeladak, kontserbak, landareak, gatzak, algak eta erropak salduko dira. Astearekin amaitzeko, hilaren 9an Gutizi Ekologikoen Ibilbidearen edizioa eta Trakamatraka taldearen eskutik umeei zuzendutako material birziklatuarekin egindako kontzertu didaktikoa izango dira Deban. ■

AUKERA PAREGABEAK!
DEITU BELDURRIK GABE ETA GALDETU GURE ESKAINTZA BEREZIEN INGURUAN!

KARTELERIA DIGITALA
ZURE NEGOZIOAREN IRAGARKIA EIBAR ELGOIBAR ETA DURANGON

WWW.INFORMATICANDO.EUS
943 15 06 22

Informatizando

Gurasoak ispilu, umeak isla

Berbetan eta **Gurasoak Berbetan** mintzapraktikako programak abiatu dira beste urtebetez. Gurasoak Berbetanera parte-hartzaile berriak erakartzeko eta ikasturteari gogotsu ekiteko puzgarriz, musikaz eta tailerrez beteriko jaialdiak antolatu ohi ditu ...eta kitto! Euskara Elkartek Untzagan eta auzoetan. Aurren, gauzak "beste era batera" egitera behartuta, Haur Hezkuntzako gurasoen bila abiatu dira antolatzaileak ikastetxez ikastetxe. Baina laguntza "berezia" izan dute: Rigoberta eta Puxika pailazo zoragarriak, eta globo-sorta arrosa ikusgarriak.



Antolatzaileen berbetan "programa xumea da, baina oso eraginkorra da euskera maila hobetzeko, euskera erabiltzeko ohitura zabaltzeko eta etxeko hizkuntza euskera izan dadin aurrerapausoak emateko".

...eta kitto! Euskara Elkarteko dinamizatzaileen hitzetan "programa sinplea da, DOAN, eta ez du eskatzen norbere ohiko bizimodutik bestelako ordutegi edo gauza berezirik egitea. Astean behin ordubete euskera erabiltzea besterik ez du eskatzen. Banaka zein taldeka hartu daiteke parte. Izena banaka ematen dutenei euren ordutegira eta baldintzetara egokitzen den taldea eskainiko diete ...eta kitto!-koek, astean behin ordubete parkean,



Astean behin ordubete euskera erabiltzea besterik ez du eskatzen. Banaka zein taldeka hartu daiteke parte



terraza batean edo taldeak aukeratzen duen tokian euskeraz jarduteko. Taldean ere eman daiteke izena: “Lehendik eginda dauden talde naturalak aprobetxa daitezke: parkean elkartzen diren guraso-lagunak, mendira joateko zaletasuna duten lagunak... Talde horiek astean tarte bat euskeraz jardutea erabaki dezakete, eurek nahi duten momentua eskaini diezaiokete euskerari, modu ludiko eta informalean”, diote elkartetik.

Garrantzitsua da euskera helduen hizkuntza ere badela transmititzea eta koherentziaz jokatzea



Edonola ere, taldeka zein banaka, ikasturtean zehar familian egiteko antolatzen diren doako ekintzetan parte hartzeko aukera izaten dute parte-hartzaileak. Era askotariko jarduerak antolatzen ditu ...eta kitto!-k: irteerak, jolasak, eskulan-tailerrak... “Familia giroan egiteko moduko jarduerak izaten dira, umeei beste ume batzuekin euskeraz jarduteko eta, batez ere, umeei ikus dezaten euren gurasoak euskeraz ari direla”.

Antolatzaileak adierazi dutenez, “sarritan umeei eskatzen dieguna ez da gurasoek egiten duguna eta garrantzitsua da euskera helduen hizkuntza ere badela transmititzea eta koherentziaz jokatzea”.

Parte-hartzaile kopurua handitu eta programaren onurak azaltzeko aste osoan zehar Eibarko HHko ikastetxe guztiak bi-

Ikasturtean zehar familian egiteko antolatzen diren doako ekintzetan parte hartzeko aukera eskaintzen du programak



situatu dituzte ...eta kitto! Euskara Elkarteko dinamizatzaileek bi pailazoan laguntzaz.

Gurasoei zuzendutako mintzapraktika-programa honek harre-
ra ona izan du gurasoen artean eta interesa piztu du askorengan,
baina aurtien bizi dugun egoera berezi honek ekarri ditzakeen
eszenatoki desberdinetatik ere galdetu dute gurasoek. Batzuen
kezka bada konfinamendura itzuliz gero programan nola parte
hartuko luketen jakitea. Antolatzaileak prest daudela adierazi



dute; izan ere, aurreko ikasturteko udaberrian erabateko konfi-
namendu sasoian makina bat jarduera egin zituzten online fami-
lian (bingoak online, magia-saioak, eskulanak, sukaldaritza...)
Balorazioa ona izan zenez, **aurten konfinamendu egoera be-
rarekin topo eginez gero, prest daudela eta modu digitalean
abiatzeko baliabide guztiak prest dituztela adierazi dute.** ■

<<< IAKES PEREZ • Zaporeak elkarteko boluntarioa Lesbosen >>>

“Eman dudana baino gehiago jaso dut Lesbosen”

Iakes Perez urretxuarrak Teknikerren sortutako ‘Atten2’ start up-ean egiten du lan, baina abuztuan punta-puntako teknologia albo batera laga eta Lesbosera (Grezia) boluntario joan zen Zaporeak-ekin. Esparruak su hartu aurreko sasoiak izan zen eta han bizi den egoera hobeto ulertzen lagundu digu. Bestetik, gogoratu Guridi tabernan domekara arte itsulapikoa egongo dela errefuxiatuei laguntzeko dirua biltzeko eta, bestela, ES32 2095 5011 80 9115250322 (Kutxabank) eta ES71 3035 0103 88 1030035880 (Laboral Kutxa) kontuetan ekarpenak egin daitezke.

IAKES PEREZ

Espero zenuena aurkitu zenuen Lesbosen?

Espero nituen gauza batzuk aurkitu nituen, baina orokorrean imajinatzen nuena baino egoera gogorragoa eta larriagoa bizi da. Bestetik, jendea ezagutuko nuela uste nuen, baina ez nuen espero hain harreran estu eta sakona egitea eta agur esatea hainbeste kostatzea, batez ere Zaporeak-en sukaldean lan egiten duten errefuxiatuekin.

Errefuxiatu guztiak zaku be-rean sartzen ditugu, baina bakoitzak bere errealitatea bizi du, edozein pertsonak bezala. Ahaztu egiten dugu hori?

Noizbehinka han bizi den egoeraren berri ematen digute telebistan, gaineratik, eta badakigu han zer gertatzen den, baina normalena da beste alde batera begiratzea edo arreta handirik ez jartzea. Gertuko kontua ez denez... Gure esku dago horren inguruan gehiago jakitea edo egitea.





JULIAN MORO GIL

1. urteurrena: 2019-09-25

“Beti izango zara gure bihotzetan”

ZURE FAMILIA

Bere aldeko MEZA egingo da domekan, hilaren 27an, 12:00etan, San Andres parrokian.



Zuk hara joatea erabaki zenuen. Nolako esperientzia izan da?

Hasieran uste dugu errefuxiatuak laguntzera goazela, baina modu inkontzientean bilatzen duguna da egoerak berak gu laguntzea. Eman dudana baino gehiago jaso dudala esango nuke. Han gertatzen denaren inguruan kontzientzia sakonagoa hartu eta jende horrek nola sufritzen duen ezagutu dut. Bizitzako gauza garrantzitsuak zeintzuk diren jakin eta gehiago baloratzeko balio izan dit. Hemen daramagun bizimoduak faltsutu egiten du benetan garrantzitsua zer den eta zer ez. Errefuxiatuek bizi izan dutena eta dituzten arazoak kontatzean, eta horrela izanik aurrera itxaropentsu egiten dutela ikustean, hemen normalean ditugun arazoak hutsaren hurrengoa direla konturatzen zara.

COVID-19aren pandemiak nolako eragina izan du errefuxiatu-esparruetan?

Egoera oso gogorra da berez, baina izurriak are gogorragoa bihurtu du. Martxotik konfinatuta egon dira Moriako kanpamenduan, nahiz eta Lesbos osoan inongo murrizketarik ez izan (gu libreki mugitzen ginen, Euskal Herrian baino libreago). Hilabeteak egon dira infernu hartatik irten ezinik.

Nolakoa da infernu hura?

Kanpamenduak su hartu aurretik 13.000 lagun bizi ziren 3.000 lagunentzat prestatutako esparruan. Ez dago nahikoa komunikatu edo dutxarrik guztientzat, demaseko zabor pilaketak



“Errefuxiatuak sei hilabete egon dira infernutik irten ezinda. Askok burua galdu du”

daude, ur beltzek eragindako errekek... Oso egoera tamalgarrian eta penagarrian bizi dira. Gainera, sei hilabetetan ezin izan direnez handik irten, jendea burua galtzen hasi da. Hainbat GKEetako medikuek esan dute azken aldia jendeak demaseko arazo psikologikoak garatu dituela, burua galtzen eta bere buruari min egiten hasi direla. Han jendeak ezin du ikasi edo lanik egin, eta %30 inguru umeak dira.

Egoera horren ondorioz piztu zen sua kanpamenduan?

Gu Euskal Herrira itzuli eta pare bat egunera lehen koronabirus kasua agertu zen kanpa-

“Suaren aurretik, 13.000 lagun bizi ziren 3.000 lagunentzat prestatutako esparruan”

menduan, eta hiru egunetan 35 kasu zenbatu zituzten. Arazo psikologikoak, bizimodu penagarria, tentsioa eta birusaren agerpena batu eta egoerak lehertu egin zuen. Dirudienez errefuxiatu batzuek suteak eragin zituzten desesperazioak bultzatuta.

Eta orain zein egoeratan daude han bizi ziren 13.000 lagunak?

Irakurri dudanez 1.000 errefuxiatu inguru Lesbosen beste kanpamendu batera eraman dituzte, baina gainerako 12.000 errefuxiatuak kale gorrian daude. Europako herrialde bakoitzak errefuxiatu

kopuru bat hartuko duela esan du, baina itxurakeria hutsa da.

Errefuxiatuak ez atzera ez aurrera geratuko dira betiko Grezian?

Europak paso egin du gai honen inguruan eta Greziari pasa dio fardela. Greziak Lesbos, Kios eta beste irla batzuk errefuxiatuen atxikipen gune bezala erabiltzen ditu, Grezia osoan zehar ez sakabanatzeko. Bestetik, errefuxiatuak heltzen hasi zirenean Lesbosen biztanleen joera politikoa nahiko ezkertiarra zen. Jendeak asko lagundu zuen eta batzuk errefuxiatuak euren etxeetan hartzen zituzten (orain ere hainbat kasutan), baina errefuxiatuen egoera hainbeste kaskartzearen ondorioz bandalismo kasuak gertatu direnez, uhartea eskuinerantz erradikalizatzen hasi da eta eskuin muturreko joerek gora egin dute. Beraz, errefuxiatuen bizitza are zailagoa da.

Egoera honetan Zaporeak nolako lana egin dezake?

Gu egon ginenean baino egoera zailagoa bizi da orain. Guk 2.000 otordu ematen genituen egunean eta orain 3.000 ematen dituzte. Bestetik, orain errefuxiatuak sakabanatuta daudenez, banaketa egiteko ere arazoak dituzte. Ura lortzeko ere arazo handiak daude. Ez dago edateko ura hartzeko aukerarik eta egunean botilako ur asko erosi behar da. Beraz, hemengo jendearen ekarpenak ongietorriak dira. Euskal Herrian egiten dugun oinarriko lana oso garrantzitsua da, Lesbosen egiten den lana hemengo lanari esker egiten delako.

JESUS GARAGARZA GURRUTXAGA

I. URTEURRENA: 2019-09-30

EZ ZAITUGU INOIZ AHAZTUKO.
ETXekoak

Bere aldeko MEZA egingo da hilaren 27an (domekan),
12:00etan hasita. San Andres parrokian.



ALFA 1920-2020, mende oso bat Portaleko erakusketa aretoan

Alfa enpresa historikoa sortu zela ehun urte beteko dira urriaren 28an eta, mendeurrena ospatzeko, gaur eguerdian erakusketa zabaldu dute Portalean, erakusketa aretoan. Armagintzaren Museoak Alfa enpresaren lankidetzarekin antolatutako erakusketa urriaren 25era arte egongo da zabalik eta, nahi duenak, martitzenetik domekara bitartean izango du ikusteko aukera, 18:30etik 20:30era. Segurtasun-neurriak direla-eta, aforoa kontrolatua izango da, eta ezingo dira 100 lagun baino gehiago egon aldi berean. Erakusketarekin batera, enpresa San Andres pasealekuan egon zen sasoiaren bertan zegoen mural batean oinarritutako tailerra eskainiko dute bihar, baita urriaren 3an eta 17an, 18:30etik 20:30era.

Gaur atek zabaldu dituen erakusketa Alfa enpresaren sorreraren mendeurrena ospatzeko ez ezik, bere ondarea zabaltzeko eta mende osoan ibilbidean egindako lana aitortzeko asmoz prestatu dute. Antolatzaileen berbetan, "erakusketa honen bidez, Alfaren bilakaeraren haria jarraituko dugu, enpresa-talde handi bihurtu eta gaur egunera iritsi arte. Enpresaren ñabardura asko ezagutuko ditugu. Eibarko bizimoduaren eragile sozial eta ekonomikoa izan da, eta 1.600 langile baino gehiago izatera iritsi zen bere merkataritza-antolaketarekin. Mundu zabalean ezaguna den josteko makina produktu enblematikoa zuen". Kooperatibismoaren ezarpenean aitzindari izan den eta Eibar eta Euskal Herria gaitzen dituen enpresa baten historia eta bilakaera gogoratzeko erakusketa da gaurtik aurrera Portalean ikus daitekeena. "Errebolberretik josteko makinara eta josteko makinatik nekazaritza-makineriara, ziklotorrera, artera, aeronautikara..." esaldiari jarraituta, ALFA 1920-2020 erakusketak kooperatibismoan ez ezik beste hamaika gauzatan ere aitzindaria izan den enpresa baten ehun urteotako ondarea, historia eta eboluzioa azalduko dizkio bisitariari: "Bisitariak Alfaren



**300.000
pezetako kapital
sozialarekin eratu
zen enpresa eta
izaera sozial
horrek bere
ibilbide osoan
iraungo du**

eboluzioa ezagutu ahal izango du. Sasoi batean, 1.600 langile baino gehiago izan zituen eta Eibarko bizitzaren motor sozial eta ekonomikoa izan den enpresa honen hainbat ñabardura ezagutu ahal izango dira bertan eta, nola ez, haren produktu enblematikoa, mundu osoan ezaguna izatera ailegatu den josteko makina ere bertatik bertara ezagutzeko aukera ere izango da".

Bestalde, erakusketa ikus-teaz gain, bisitariarentzat tailerrak eskainiko dituztela azaldu dute antolatzaileek: "Alfako muralean oinarritutako tailerra izango da eta josteketa eta artea bateratuko ditu. Bihar eta urriaren 3an eta 17an emango dugu, 18:30etik 20:30era. Ez da beharrezkoa izango izena aurretik ematea, baina lagun batek aforoa kontrolatuko du".

Mundu mailako krisi ekonomiko latz eta gogor baten erdian sortu zen Alfa lantegia: "1920. urtea zaila izan zen hiri armaginarentzat. Lehen Mundu Gerraren amaierak eskarien erorketa bortitza ekarri zuen eta biltegiak saldu ezin ziren armaz beteta zeuden. Urte horretan bertan gobernuak, pistolismoaren areagotzeaz eta atentatu anarkistek zekarten arriskuaz kezkatutik, armen salerosketa eta jabetza mugatzen zituzten lege berriak ezarri zituen".

Krisialdiak, ezegonkortasuna eta grebak izan ziren nagusi urte osoan zehar eta, gauzak horrela, Eibarko armaginek aurrera egin ahal izateko bide berriak bilatu, beste aukerarik ez zuten izan. Testuinguru horretan, 1920ko urriaren 28an, greba luze baten ondoren, Orbea Hermanos enpresako sei langile ohik "Sociedad Anónima Cooperativa de Producción de Armas de Fuego Alfa" sortu zuten, 300.000 pezetako kapital sozialarekin. Espainiako lehen kooperatibetako bat izan zenak, gerora ere, beti eutsiko dio sortzaileek eman zioten kooperatiba eta gizartearendako izateko izaera horri.

Lehenengo tailerra orduko Vista Alegre kalean ipini zuten,



San Andres pasealekuko lantegia erausi zutenetik, Armagintzaren Museoan dago murala.

Echeverria Hermanos (“Kiriki-xuanekua”) tailerra egon zen tokian, eta hasieran 32 eta 38ko “esmitzak” (Smith Wesson) egiten hasi zen. Hala ere, bost urte baino ez zituela, armagintzaren eta arma-merkaturatzearen inguruan izandako gertakizunek bultzatuta, bere helburua eta zertarakoa aldatu egin behar izan zuen Alfa: 1925eko otsailaren 4an erabaki zuten josteko makinak egin eta saltzea. Beste askok bezala, lehendik zeuden makinekin eta beharginek egiten zekizkiten lanekin bateragarria izango zen produkturen bat bilatu zuten hauek ere. Benito Galarragari eman zitoten josteko makinak egin ahal izateko koaderno teknikoak bilatzeko eta prestatzeko enkargua. Ordurako tailerra lekuz

aldatuta zegoen, San Andres Pasealekura. Diotenez, josteko makinak egiteko lege-baimena ere eskuratua zuen bost urterako eta horrek mesede handia egin zion merkatuan azkar sartzeko eta produkzioa ugartzeko: 1927. urtean 1.750 egin zituen eta 1935. urtean, berriz, 12.000 josteko-makina irten ziren Alfatik. Produkzio ahalmen horri esker, Espainia mailan josteko makinaren fabrikazioan aitzindari izatera ailegatu zen. Eibarren ere garrantzi handiko lantegia bilakatu zen berehala: kontuan izan behar da ordurako 1.000 familiatik gora bizi zela Alfari esker. 1936ko gerrak eragin zuen krisiak gogor astindu zuen, baina Banco San Sebastianen laguntzari esker berriz ere burua altxatzea lortu

zuen. 1940ko azaroan, “Sociedad Anónima Cooperativa Alfa” zaharraren ondasun guztiak “Maquinas de Coser Alfa, S.A” berriaren izenean ipintzeko eskriturak izenpetu zituzten eta, harrezkero, fabrikak gora egingo du nabarmen eta etenbarik.

1946. urtean hasi ziren Alfa josteko makinak atzerrira saltzen eta 60ko hamarkadarako josteko makinak saltzeko bere merkatu-sarea bazuen. Hiriburuz guztietan zeuden salmentarako sukurtsalak, ordezkariak eta agentziak, eta 70 herrialdetara baino gehiagotara esportatzen zituzten Eibarko fabrikatik irtetzen ziren josteko makinak. Sasoi hartan Ingalaterran eta Frantzia Alfa merkatura begira egindako antolamendu bereziak zi-

tuen eta Mexikon eta Ghanan ere izan zituen fabrikak. Alfa lortu zuen atzerrian osperik handiena. Eibarko lantegirik handiena zen eta beharginek beste inon ez zeuden bentajak zeuzkaten: “Fondos Benéficos Sociales” (1931), “Caja de Previsión y Socorro” (1941), “Caja de previsión Laboral de Máquinas de Coser Alfa” (1947), bertako langileentzat etxebizitzak eraiki zituen, eskolak eta udal-lekua haien seme-alabentzat, jangelak, ekonomatoa, liburutegia... Horien guztiengatik, Alfa tailerra baino zerbait gehiago izatea lortu zuen eta “alfista” berba, berriz, belau-naldi oso batentzat lan eta gizarte harremanak ulertzeko eta izateko modu jakin baten ikurra izan zen.

fasprint
inprimategia

INPRESIOA PAPEREAN
Serigrafia - Karnet argazkia

Telf.: 943 20 16 13 - 688 68 73 85
fasprintei@yahoo.es

Ego-Gain, 11 ac. - EIBAR - www.fasprintelbar.com

Armagin, 3-5 beheak

PUBLI RESA
objeto publicitario

merchandising
serigrafia
lanerako erropa

pulbiresa@pulbiresa.com 943 701 497 / 615 799 419



Asier Azkue

ASIER AZKUE

Francis Fukuyamaren omenean

1992. urtean Francis Fukuyamak "Historiaren amaiera eta azken gizona" liburua argitaratu zuen. Entsegua begi onez jaso zuten mendebaldeko kapitalistek, izan ere, liburuak komunismoaren mamuaren behin behineko heriotza deklaratzeko zuten Sobietar Batasunaren erortzea gertatzen zen momentuarekin batera. XXI. mendeak bakean eta elkartasunean oinarrituriko gizarte liberalak ezarriko zituela zioen Fukuyamak, gerlak, klaseen arteko borroka eta iraultzak iraganeko fenomenoak kontsideratuz.

"Koronabirusak osasun-sistemak kolapsatu eta ekonomia suntsitu ondoren, denok ezagutzen ditugun betiko fenomenoak azaleratu ditu"

Hala ere, ez da beharrezkoa oso iritzi kritikoa edukitzea horrelako teoriak deuseztatzeko. Baina, bestalde, egia da kapitalismoa legitimatzera datozen teoriak oso sustraituak daudela egungo gizartean. Ongizatearen eta elkartasunaren gailur hipotetiko honetan, ezinezkoa egiten zaigu, adibidez, COVID-19ak jatorri naturala duela pentsatzea. Ezinezkoa egiten zaigu hori pentsatzea; izan ere, Fukuyamak baietsi zigun egungo gizarte perfektu honetan, pandemiak, iraultzak bezala, Historiako liburuetan agertzen diren fenomenoak direla. Negazioniztek, behintzat, horrelako zerbait esaten dute.

Baina pandemiak zerbait erakutsi digu: alde batetik, gizartea ez dela hilezkorra eta pandemiak ez direla iraganeko ipuinak. Bestalde, gizakiak eraiki dituen instituzioak erraz erori daitezkeela, eta mundua konfiguratzeko duten kontraesanak erraz azeleratzen direla. Koronabirusak osasun-sistemak kolapsatu eta ekonomia suntsitu ondoren denok ezagutzen ditugun betiko fenomenoak azaleratu ditu: langileak (eta euren auzoak) direla pandemia gehien pairatzen ari direnak eta aberatsak gero eta aberatsagoak direla. Gainera, nazioarteko tentsioak ez dira desagertu.

Fukuyamak uste zuen Sobietar Batasunaren eta langile mugimenduaren porrotarekin kapitalismoak bere legitimize historikoa bermatuko zuela, baina oso oker zebilen. Pandemiak kapitalismoa paperezko tigrea dela erakutsi digu beste behin ere; hau da, erraz erori daitezkeela. Agian horretaz konturatu zen Fukuyama orain dela bi urte eskaini zuen elkarriketa batean, non sozialismoa bueltatu beharko lukeela baieztatzen zuen Karl Marxen teoriari arrazoiak emanaz. Nork daki zer pentsatuko duen egungo egoera ikusita...



Iñaki Ugarteburu

IÑAKI UGARTEBURU

COVID-19a eta kirola

Ez naiz batere originala, badakit, baina premia daukat honetaz berba egiteko. Sasoi aldrebesak bizitzen ari gara, arazo eta kezka ugari ditugu, eta horiei aurre egiteko jarduera fisikoa edota kirola egitea gomendatu nahi dizuet.

Arriskuz inguratuak gaude eta badira batzuk etxetik gutxi irtetea erabaki dutenak; beste batzuk, ordea, saiakera egiten ari dira modu seguru batean aurretik zituzten hainbat ohitura mantentzeko, baina horretarako ere, kasu batzuetan, erraztasun gutxi aurkitzen dira.

Ziurrenik etxetik ez irtetea izango da seguruena ez kutsatzeko; baina, irten eta kirola praktikatzea nahi izanez gero, bada- go horretarako aukera haur, gazte, heldu eta nagusientzat.

Kirol talde, gimnasio edota udal baten azalean jarrita, merezi du kirol jarduerak eskaintzea? Garbi dago partaide kopurua eta praktikatzeko baldintzak oso mugatuta daudela eta ekonomikoki jarduera asko ez direla bideragarriak. Baina motibazio asko dago; jendearen pozak, sozializazioak (mugatua), osasunak... indarra eman behar digute aurrera jotzeko.

Eskola edo lantegi batzuetan mantentzen diren segurtasun-baldintza zorrotzak zaila da eguneko 24 orduetara zabaltzea, baina galdera bat egin nahi dizuet: non egon ahal dira haur edota gazteak seguruago, kalean, parkean jolasean, kontrol gabe edota kontrol gutxirekin edo talde baten entrenamenduan edota irakasle baten agindupean saio bat burutzen eta segurtasun-baldintzak betetzen?

Kirolak hezitzeko aukera ematen du, disfrutatzen, osasun fisiko edota mentala hobetzeko, lagunak egiteko... Arriskuak gutxitu eta kirola praktikatzeko jarraitu, hori da nire aukera.

"Ziurrenik etxetik ez irtetea izango da seguruena ez kutsatzeko; baina, irten eta kirola praktikatzea nahi izanez gero, bada- go horretarako aukera haur, gazte, heldu eta nagusientzat"



Norbaitek pentsa zezakeen martxotik bizi dugun osasun-egoerak udan oporrak hartuko zituela, baina, zoritxarrez, bestelakoa izan da errealitatea; izan ere, birusak etenik gabe jarraitu du lanean, konfinamendu garaiko datu are kaskarragoetara iristeraino.

Normaltasun berria zaharkitzen ari zaigunean, aurrera begirako erabakiak hartu behar dira arlo guztietan: lan-munduan, hezkuntzan, osasun-arloan, aisialdian, kirolean...

Kazetaria: **Malen Illarramendi Beitia**

GAZTEON

Koronabirusa lan eta lan



Zer diote elkarrizketatuek?



MARKEL GUTIERREZ

Atletismoko entrenatzailea
(21 urte)

“Abantaila daukagu beste kirol batzuekin alderatuz: espazio zabalean entrenatzen dugu, eta kontaktu gabeko kirola da”.



ARRATE BAROJA NAHIA ARGUIZ

Gimnastak
(21 eta 18 urte)

“Birusa entrenatzen edota kalean ere harrapatu genezake, ez gara horren beldur”.



MIKEL EGAÑA

Futbol entrenatzailea
(27 urte)

“Ez da erraza izan, baina beldurrez aritzeko hobe da ez entrenatzea. Behar bezalako entrenamenduak prestatzeko, ezinbestekoa da beldurra kentzea”.



ROKE ETXEBERRIA

Igerilaria
(19 urte)

“Federazioak oraingoz ez digu erantzunik eman, ez dakigu nolakoa izango den datorkigun denboraldia. Egoera nahiko txarra da”.

Zer datorkigu arlo horietako bakoitzean COVID-19aren aurrean? Esku artean duzun atalean kirol munduan jarri dugu arreta eta, esparru honen etorkizuna argitze aldera, hainbat gazteren egoera ezagutu nahi izan dugu.

Esan gabe doa Eibarren kirolak indar eta tradizio handia duela; beraz, herriko hainbat kirol-elkartetara jo dugu, gutzietara ezinezkoa baita, euren egoera zehaztu diezaguten. Mikel Egañaren (futbola), Markel Gutierrezen (atletismoa), Roke Etxeberriaren (igeriketa), Nahia Arguiz eta Arrate Barojaren (gimnasia erritmikoa) testigantzak jasoko ditugu, une honetan kirol horiek bizi duten egoera gertutik ezagutzeko asmotan. Nola ari dira jokatzeko? Zein muga dituzte? Euren artean positiborik egonez gero? Aurrera begira, zer?

Udako oporrak amaitu eta errealliteratu jautsi egiteko hila-

“Arriskua ez dago uretan, baizik eta hortik kanpoko tartetean: deskantsuetan, adibidez” Roke

“Zelairatu baino lehen tenperatura neurtu behar dugu; 37,2 C°tik gora izanez gero, ezin da entrenatu” Mikel



betea da iraila. Aurten, gainera, inoizko errealliteratik bitxienerekin egin dugu topo: ezjakintasunez betetako egunerokoa, prebentzio-neurriz jositako eremuak, maskararen derri-gorrezko erabilera... Ez dira gutxi izan koronabirusak ekarri dizkigun mugak eta arauak.

Beste zenbait arlotan bezala, kirolean ere buruhauste handiak izan dituzte Eibarko gazteek uda osteko normaltasun berri honetarako egokitzapen-prozesuan. Izan ere, ez da lan makala datorkigun ikasturte honetarako etorkizun hurbileko aurreikuspenak egitea. “Zaila da gauzak planifikatzea; protokoloak errespetatuz, ahalik eta normaltasun handienez jarduten saiatzen naiz” diosku atletismoko entrenatzaile-lanetan aritzen den Markelek. Egunean egunekoa antolatu behar, ezinbestean!

Entrenamenduetan hartu beharreko neurriei dagokienez,

kirol bakoitzak bere protokoloa prestatu du, euren beharretara egokituta, alegia, egoera bakoitzari ondoen egokitzen diren arauak ezarriz. Gimnasia erritmikakoek, adibidez, ezin dute materiala (zintak, pelotak, uztaiak...) partekatu, eta momentu oro distantziak gorde behar dituzte euren artean; horrela ez bada, nahitaez musukoa jarri behar dute. Gainera, Nahiak dioenez, “ezin ditugu aldagelak erabili, entrenamenduko erro-pa jantzita eraman behar dugu, eta etengabean gabiltza dena desinfektatzen”. Futbolearen ere neurri zorrotzak hartu dituzte. Mikelek honela azaltzen digu: “Zelairatu baino lehen tenperatura neurtu behar dugu; 37,2 Cºtik gora izanez gero, ezin da entrenatu. Horretaz aparte, erabilitako materiala bai hasieran eta bai amaieran desinfektatu beharra daukagu”.

Igeriketa eta atletismoa banakako kirolak direnez, arazoa ez dago elkarren arteko kontaktuan. Igeriketan lekua da eragozpen handiena; izan

**“Ezin ditugu aldagelak erabili, entrenamenduko erro-pa jantzita eraman behar dugu, eta etengabean gabiltza dena desinfektatzen”
Nahia/Arrate**

ere, kale bakoitzean lau igerilari besterik ezin dira aritu eta, Rokeren hitzetan, “arriskua ez dago uretan, baizik eta hortik kanpoko tartean: deskantsuetan, adibidez”. Atletismoaren kasuan, aldiz, erabilitako materiala desinfektatzen aritu behar dira etengabean, hurrengo erabiltzaileak garbi aurkitu dezan.

Denek diotenez, zintzo betetzen dituzte osasun-neurriak,

**“Zaila da gauzak planifikatzea, protokoloak errespetatuz ahalik eta normaltasun handienez jarduten saiatzen naiz”
Markel**

eta argi daukate hori dela egoera hobetzeko bide bakarra. Izan ere, nor bere aldetik jarri ezean, nekez gaingaituko dugu birusaren kontrako borroka.

Esan beharrik ez dago kirolean ere, gainontzeko esparruetan bezala, taldeetan positiborik agertuz gero, Osakidetzarekin harremanetan jarriko direla eta bete beharreko protokoloa jarraituko dutela: gainontzeko taldekideek

ere PCR proba egin, etxealdia errespetatu, higiene-neurriak zaindu...

Oro har, ahalik eta normaltasun handienaz jokatzen saiatzen badira ere, aldaketarik handienak lehiaketei begira-koak dira, horietako gehienak oraindik etenda baitaude. Aurrera begira ere, ezjakintasun handia dago gai honetan, zer gertatuko zain egon besterik ez dago-eta.

Etorkizunari buruz galde-tuz gero, gure kirol-protagonistak bat datoz erantzunean: osasun-egoerak hobera zein okerrera egin dezakeenez, unean unekoari heldu behar zaio, eta horretarako prestatuta egon behar dute, eta aurreikuspenak egin. A plana, B plana eta baita C plana ere prestatu behar dira datorrenari behar bezala heltzeko. Ezarritako neurriak eta arauak errespetatuz eta protokoloei jarraituz, normaltasun dagoeneko ez hain berri honetara egokitzea besterik ez daukate diote.



Nola aurreikusten dute etorkizuna?

MARKEL GUTIERREZ

“Arauk eta protokoloak behar bezala jarraitzen baditugu guztiok, denboraldi arrunt edo ohikoa izango dugula esango nuke”

ARRATE BAROJA ETA NAHIA ARGUIZ

“Etorkizun hurbilean zer gerta daitekeen ez dakigu, berrogeialdi gehiago egon daitezke, murrizketa zorrotzagoak. Egoera hau egunez egun bizi behar dugu orain”

MIKEL EGAÑA

“Egoera aldatu egin daiteke; hobera zein txarrera. Denborak esango du zer gertatuko den futbol ez profesionalarekin”

ROKE ETXEBERRIA

“Ez diot itxura onik hartzen aurtengo igeriketa sasoiari, entrenamendu orduak asko murriztu dizkigute-eta”





Oso egitarau zabalarekin datoz Ondarearen Europako Jardunaldiak

Foru Aldundiko Kultura Departamentuak Ondarearen Europako Jardunaldien bosgarren edizioa aurkeztu berri du: "Kontaguzu Ondarea! Ondarea eta Hezkuntza" izenburuari jarraituz, irailetik azarora bitartean Gipuzkoako 40 udalerritan 150 jarduera inguru egingo dira, 70 erakundek antolatuta. Hala azaldu zuen M^a Jose Telleria Kultura Foru Zuzendariak edizio honetako programa ezagutzera emateko ekitaldian.

Urriaren 17an "Eibar, lana artea den tokia" tailerra eskainiko da Eibarren, 11:00etatik 13:00era, Armagintzaren Museoan. Bisita gidatu baten bitartez, sasoi bateko Eibarko Dibujo Akademiara, damaskinatura eta grabatura gerturatzeko aukera egongo da, eta, behin bisita amaituta, marrazketa apaingarriaren inguruko tailerra egingo dute parte-hartzaileek.

Europako Kontseiluaren ekimen honekin "ondarearen garrantzia balioetsi eta herri-tarrei gerturatzea" nahi dute

eta, Kultura zuzendariaren berbetan, "aurten, gure ondarea agerian uzteko konpromisoa, ilusioa eta gogoia are handiagoak izan dira aurreko urteetan baino, eta hori erronka handia izan da parte hartu duten eragile guztientzat, COVID-19ak eragindako murrizketa eta ziurgabetasunagatik. Gure esker ona adierazi nahi diegu erakunde antolatzaile guztiei, ziur baikaude gipuzkoarrek ondarearen festa hau gozatzu baloratuko dutela". Programa oso zabala da, eta hainbat gai-jorratzen ditu: zinema, botanika,

Jardunaldien harira, "Eibar, lana artea den tokia" tailerra eskainiko dute Armagintzaren Museoan urrian

musika, dantza, mitologia, gastronomia, hiri-kultura, artea, arkitektura. Gainera, ikusleek gazteentzako, familientzako eta helduentzako jardueraz gozatu ahal izango dute: ikuskizunak, fanzine tailerrak, bisita eta ibilbide antzeztuak edo gidatuak, tailer edo jardunaldi gastrokulturalak, erakusketa fisiko eta birtualak... Foru Aldundiak liburuxkak argitaratu eta banatu ditu egitarau osoarekin (Armagintzaren Museoan eska daiteke) eta www.gipuzkoa.eus webgunean ere eskuratu daiteke. ■

Baimendutako Harategia
Gure Kalitatea
Giokela

MUGIKA HARATEGIA
Urkizu, 18
943120194

10 ERRONKA

OSASUNTSU JATEKO

Zaloa Otaduy

Farmacook Nutrizio
Eskolako arduraduna
farmazialaria eta nutrizioan aditua

4

Defentsa-sistema indartzeko momentua

Gizakiok kanpotik etorri ahal zaizkigun erasoetatik babesteko defentsa-sistema zoragarri batekin jaiotzen gara. Jaiotzen garen momentutik aurrera gure gorputzak “badaki” kanpotik eraso ezberdina jasoko dituela, eta horietaz babesteko gai egiten gaitu, naturako beste animalia eta espezie ezberdinekin bizitzeko gai.

Horrek sistema immunologikoa du izena. Bere funtzioa? Gure bizitza babestea.

Birus, bakteria, eta hainbat substantzia eta gertakizun kaltegarri aurkituko ditugu bidean eta, gure defentsa-sistemaren indarraren arabera, kalte handiagoa edo txikiagoa eragingo digute.

Gaur birus batekin daukagu borroka eta, birus horren transmisioa saihestez gain, haren kontra ere joan gaitezke, gorputzean ahalik eta min txikiena eragin dezan. Horretarako, egunero jaten dugunak izugarritzeko eragina dauka. Egunero-egunero jaten dugunak indartsuagoak edo ahulagoak egingo gaitu-eta.

Jende nagusiak berez dauka defentsa-sistema ahulagoa; beraz, zaindu ditzagun bereziki. Haurrek eta gazteek, aldiz, defentsa-sistema indartsuena dute; beraz, zaindu ditzagun arma zoragarri horri eutsi diezaioten.

Baina, zelan zainduko dugu? Zelan indartu gure defentsa?

Lehen pausoa, garrantzitsua, ezinbestekoa, defentsa-sistema bortizki mintzen duen hura saihestea izango da.

Elikadurari dagokionez, azukrea, erreferinatutako irinak eta olioak, eta ultraprozesatutako jangarriak diren produktuak ekidin. Gure eguneroko menuetan sartzen baditugu, gure kontra ari gara, gutxi-naka-gutxinaka defentsa-sistema ahultzen. Oreka apurtzen duen edozerk kaltetzen du gure defentsa-sistema eta, desoreka hori orekatzen egunez egun lanpetuta edukitzen badugu, eraso handiago bat datorrenean ez da behar bezala erantzuteko gai izango.

Gure defentsa-sistemari indartsu egoteko behar duen guztia eman nahi badiogu, sendagaiak diren elikagaietan sinetsi beharra daukagu



berriro. Elikadura begetalagoa eginez, ekologikoa, barazkiak eta frutak, fruitu sikuak eta lekaleak ahaztu gabe.

Momentu berezi honetan, inoiz baino gehiago, C bitamina, D bitamina, Omega 3a, zinka, burdina, proteinak, antioxidatzaileak eta beste hainbeste osagai behar ditugula entzuten ari gara.

Batzuetan baliteke errefortzu bezala osagarri bat hartu behar izatea, gure immunitate-sistema indartzeko, horretarako beti aholku profesionala eskatuta. Baina, orokorrean, elikadura orekatu bat eginez lortu dezakegu behar dugun guztia birus honen aurrean ahalik eta indartsuen egoteko.

Barazkiak, frutak, fruitu sikuak, lekaleak.... Horiek izango dira gure elikagai-sendagai garrantzitsuenak, egunero-egunero gure osasuna indartuko dutenak. Sagar bat, bertoko eta sasoiko edozein barazki, dilista plater bat, intxaur batzuk, kiwi pare bat, eta bertoko edozein elikagai natural aukeratzen duzun

“Orain inoiz baino gehiago ulertzen dugu osasunaren garrantzia, eta norberan osasuna ez dagoela beste inorenaren ginetik”

bakoitzean, sinetsi, zure osasunaren alde ari zara. Eta egunero-egunero egiten baduzu...

Zaindu gaitzen ilusioz. Gure esku asko dagoelako, gure osasuna barne, eta hori “berri” ona da. Orain inoiz baino gehiago ulertzen dugu osasunaren garrantzia, norbere osasuna ez dagoela beste inorenaren ginetik eta gure etxea ez dela giltzarekin zabaltzen dugun atearen barruan dagoena soilik. Gure senide eta lagunak, gure auzoa, gure herria... mundua da gure etxea, eta zaindu beharra daukagu. Dena, denok, elkarri eta norbere burua. Bizitzaren borrokan aurrera egiteko.

Zaindu gaitzen, norbera eta elkarri. Eta osasunaren bidean joango gara. Zoriontasunaren bide berdina. Kasualitatez?

<<< ASIER ARREGI • 'Osasuna eta eskubideak' taldea >>>

“Eztabaida zientifikoa egotea eta publikoa izatea eskatzen dugu”

Martitzenean 'Osasuna eta eskubideak' taldea aurkeztu zuten eta Asier Arregi eibartarra izan zen aurkezpeneko hizlarietako bat. Koronabirusak eragindako egoeraz kezkatuta dauden herritarrek osatzen dute plataforma eta bihar karabana abiatuko dute Hego Euskal Herriko hiriburuetatik. 12:30ak inguruan pasako da Eibartik.

Nola sortu duzue taldea?

Bertsio ofiziala sinesten ez dugunon artean elkarbilatu gara. Konfinamenduan bizitakoaren inguruko galderak sortu zitzaizkigun, eta esaten zutenari eta hartutako neurriei ez genien logikarik aurkitzen. Konfinamendu berba bera ez da berba sanitarioa, militarra baizik. Isolamendua izan beharko litzateke berba egokia eta gaixorik dagoena isolatu beharko litzateke, ez osasuntsu dagoena. Bestetik, egoerari aurre egiteko eskubideen murrizketa gogorrak egin dira eta poliki-poliki dosia igotzen, neurri faxistak ari dira ezartzen. Hau guztia boterearen manipulazio saio bat dela pentsatzeko arrazoiak daude, krisi ekonomiko erraldoia datorrigulako gainera. Horretarako, iritzi askatasuna asko mugatu dute. Debeekatutako informazio asko dago, zentsura itzela. YouTuben 60.000 bideotik gora zentsuratu dituzte eta horietako batzuk bere iritzi zientifikoa ematen duten zientzietan katedradunak diren pertsonenak dira.



MARISOL RAMIREZ

Zuena bezalako iritziek ezarritako diskurtsoa apurtzen dute...

Argi laga nahi dugu ez garela negazionistak. Agerian dauden datu objektiboetan oinarritutako iritziak ditugu. Orain gerra mediatikoa bizi dugu eta berriek tresna asko dituzte (mal-dita.es, adibidez) euren kontra ateratzen den informazio guztiari kritika egiteko. Euren sortu dute negazionista berba. Gurea ez da negazionismoa, eurena baizik, botereak egiten duena. Guk jakintsuen artean eztabaida zientifikoa egotea eta publikoa izatea eskatzen dugu. Gizarteak jakin behar du ez dagoela pentsamendu bakarra.

Nola antolatzen zarete talde barruan?

Herri bakoitzean talde txikiak sortu dira elkarri laguntzeko helburuarekin, etorriko den krisia iritsi aurretik neurriak hartzeko. Gainera, nazioarteko ikerketa komisio independentea sortzen dihardugu, tartean, Suitzian lan egiten duen fisikari nuklearra, artikulu zientifikoko ugari publikatu duen kardiologo bat, beste mediku batzuk, biologoak, ingeniariak, eta abar.

Bihar auto karabana egingo duzue. Zertan datza?

Hego Euskal Herriko lau hiriburuetatik abiatuta auto karabana egingo dugu bozgorailuekin, kartelekin eta bestelako aldarrikapenekin, jendeak gure mezuaren berri izateko. Karabana Arantzazun amaituko da, toki sinbolikoa delako.

ANJELMARI LETURIONDO ALBERDI

1. urteurrena: 2019-09-24



“Beti gure artean izango haiz”

GURELEKUKO KUADRILLA



>>> Eibartarrak ondo aprobetxatu zuten EasyRace Open mailako bigarren proba "etxean" (Nafarroan, Los Arcoseko zirkuituan) jokatzeko zela, bere onena eman eta entrenamenduetan polea eskuratu eta, ondoren, lasterketan itzuli azkarrena egiteko eta, azkenean, garaipena lortzeko. Ezin dakioke gehiago eskatu Amañako motor-gidariari! Beroak piloto guztiei eragin zien barixakuko entrenamenduetatik bertatik: "Horregatik, Michelin pneumatiko berriein pistaratu ginen, geometriak eta garapenak aldatzeko gakoarekin eman arte". Krono bietan ere itzuli azkarrena egin zuen Monterok, bigarrenen 1.46.2 denborarekin polea eskuratzeko. Behin domekara iritsita, "lehen

Aitor Monterok polea, itzuli azkarra eta garaipena lortu zituen Los Arcoseko proban



Eibarko motogidaria podiumaren gorenean Nafarroako zirkuituan.

postuan irriteak sortzen duen zirrari ezin eutsiz semaforo gorria amatatzen doala ikusi arte", beste piloto batek aurrea hartu zion Aitorri, baina hirugarren itzulira arte iraungo zuen behin-behineko bigarren postu horrek, "koadrodun bandera ikusi arteko" beste hamar itzuliek aginte bakarria ezagutuko zutelako. Lasterketako itzuli azkarra 1.45.8an lagatzeraino.

Txapelketako bigarren lasterketa horrek sailkapen orokorreko lehenengo postuan kokatu du Aitor Montero Team taldearen lana. Horregatik eskertzen du eibartarrak babesa eskaintzen diotenen parte-hartzea, tartean Ramon Izquierdo managerra, Arantzazu Guridi fisioterapeuta, Bizkai Motor Racing eta beste asko.

Simon Aldazabal saria domekan jokatu da azkenean

>>> Hasieran bertan behera lagatzeko asmoa azaldu bazuten ere, azkenik Klub Deportiboko atletismo batzordekoek Arrateko jaien barruan jokatzeko den proba berreskuratzea erabaki dute. Oraingoan udazkenean jokatu da, urtaroa hasi eta

berehala, datorren domekarako iragarri baitute lasterketa. Betiko moduan, parte-hartzaileek Toribio Etxebarria kaletik abiatuko dira 10:30ean eta Arrate bila joango dira Azitaingo bidetik. Aurtengoan 25. edizioa izango da jokoan.



Gipuzkoako txapelketarako sailkatu dira Dianako bi ehiztari

>>> Aurreko zapatuan Zambranako jokatuak Debabarrenen txapelketan, Jose Luis Gisasola garaile izan zen nagusietan eta Iñigo semeak bigarren postua lortu zuen senioretan. Jose Luisek bost eper bota zituen eta aurrea hartu zion Jose Mari Egañari (hiru

eper) eta Maurori (bi). Senioretan, Iñigok aitaren kopuru bera lortu zuen, bost eper, baina David Condek hartu zion aurrea, seirekin; Iban sailkatu zen hirugarren, hiruarekin. Diana elkarte bi kideek txartela lortu dute abenduaren 12an jokatu den Gipuzkoako finalerako.





**JUAN LUIS
Ulazia Landa**
9. urteurrena (2011-IX-25)

**"Gure artean ez bazaude ere,
GUREKIN zaitugu BETI"**

ETXEOAK



MEMORIAL DE
BERE SORTERIA
DISTRIBUAK HAN DIOJEMAN
JULIA PEAK
2347



Bizi dugun egoerari kementsu eutsi diote Kalamuako kirolariek.

Uda betea izan dute Kalamua judo klubekoek aurten ere

>>> Pandemiaren eraginez Euskadin azterketarik egin ez bada ere, Kalamuako hainbat kirolari Guadalajaran izan dira 3. Dan maila eskuratzeko. Ikastaro horretan lortu zuten jiu-jitsuko 2. Dana Unai Perezek eta Juan M^a Cabañesek, eta abuztuaren amaieran atera zuten erregional mailako jiu-jitsuko entrenatzaile titulua Jon Arteagak, Hegoi Estebanek eta Mikel Txakartegik judoko 3. Dana eskuratzen zuten bitartean. Hilabete lehenago, uztailearen amaieran, lortu zuten

Ernesto Arabiaurrutiak judoko 1. Dana eta ekainean jauzi hori eman zuen jiu-jitsun Arkaitz Garbizuk. Urrian, bestalde, Murtziako Los Alcaçeresen sambo borroka modalitateko Espainiako txapelketa izango da jokoan eta bertan Kalamuak hiru ordezkari izango ditu. Eta abenduaren 8an Madrilen jokatuko den jiu-jitsuko senior mailako Espainiako txapelketa Kalamuak talde indartsua aurkeztuko du, "podiumera eskotan igo diren zazpi mutil eta bi neskekin".



Valenciaga probaren helmuga T. Etxebarriatik Arratera aurten

>>> Espainiako Itzuliaren lehenengo etapa bertan amaitzeaz aparte, afizionatuen mailako estatuko lasterketa garrantzitsuenak ere gain berean izango du helmuga urriaren 11n. Pandemiaren eraginez apirilaren 5etik data horretara atzeratu den proba elite eta 23 urtetik beherako mailako Espainiako Kopakoa da eta afizionatuen mailako probarik historikoa dugu. Oraingoan hiriaren erdiguneak Arrateko gainari lagako dio tarte helmuga bertan izateko eta ibilbidea 14 kilometrotan murriztuko dute, hori bai, amaiera gogorragoa izateko. 153 kilometroko distantzian eskalatazailerik aukera bikaina

izango dute euren dohaiez baliatuz proba eurenganatzeko. Lasterketa goizeko 09:30ean hasiko da eta handik lau bat ordura amaituko, 13:30ak bueltan. Euskal Bizikletako eta Euskal Herriko Itzuliko azken edizioetako amaiera antzerakoa izango du, oraingoan Usartzatik bitan pasatuz. Antolatzaileek diotenez, "jende asko ez biltzea da gidatzen gaituen helburua. Horrela, azken edizioetan Eibarko erditikirteten bagenen, orain poligono industrial bat hartu dugu abiapuntutzat. Arraten amaituta ere, zaletuei eskatzen diegu ez joatea bertara". Lasterketa streaming bidez jarraitu ahal izango da.



...eta kitto! **astekariko**

ETXERIK ETXEKO BANAKETA-ZERRENDA BERRITZEN DIHARDUGU

Eibarko etxeetan aldizkaria **JASOTZEKO** edo **JASOTZEN JARRAITZEKO** zerrendak bete behar dituzue.

Hurrengo asteetan kale hauetako pegoretan jarriko dira orriak:

JULIAN ETXEBERRIA - ZULOAGATARREN - SANSABURU - ERREKATXU - BIDEBARRIETA - URTZAILE - ARANE

banaketa.etakitto@gmail.com



Tximak ileapaindegia.



AEK euskaltegia.



Arima Galduak.

50 entitate baino gehiago batu dira Eibarko 'ariguneen' zerrendan

Ekimen kolektiboa izanik Eibarko hainbat entitatek Euskaraldian parte hartzeko proposamena gogo handiz hartu dute. Era guztietako 50 entitate baino gehigok eman dute izena dagoeneko: enpresa txiki eta ertainak, ikastetxeak, dendak, tabernak, elkarteak, udal bulegoak... Era berean, Euskaraldiko herri batzordeak gogorarazi du irailaren 27ra arte, igandera arte, izena emateko aukera dutela entitateek; Euskaraldiko webgunean egin daiteke, formulario txiki bat betez.

Azaroaren 20a eta abenduaren 4a bitartean egingo da aurtengo Euskaraldia eta, prestaketa lanetan murgildurik, *arigune* izango diren entitateetan jarri nahi izan dute fokua aurtengoan. Orain artekoa COVID-19ak baldintzatu badu ere, antolakuntzatik pozik agertu dira herritarren erantzunarekin.

Oraindik izena eman ez duten erakunde edo kolektiboei dei egin eta Euskaraldia-rekin bat egitera animatu dituzte. Esan bezala, irailaren 27ra arte izango dute izena emateko aukera eta ordutik aurrera ere lanean jarraituko dute, batez ere fokua norbanakoetan jarritz.

2018an *Belarriprest* eta *Ahobizi* bezala parte hartu zutenei mezua bildaliko zaie eta, aurten bizi dugun egoera dela eta, izen-ematea *online* egitea lehenetsiko da. Dena dela, izen-ematea Internet bidez egiteko zailtasunak dituztenei laguntza emateko bi leku egongo dira Eibarren bertan. Dena dela, antolatzaileek adierazi digutenez, "horratarako oraindik badago denbora eta joango gara apurka-apurka zehazten eta informazioa zabaltzen".



CARMEN GUENETXEA ARRIAGA



**"Denbora aurrera badoa ere,
gure gogoan jarraitzen duzu"**

ETXEOAK





Txukuna mertzeria.



Udal euskaltegia.



SareTraslations.



Armeria Eskolako atezaintza.



Armeria Eskolako idazkaritza.



Armeria Eskolako klaustroa.



Armeria Eskolako ikasle ohien elkarte.



Afariketan programan eta Jazinto Olabeko ludotekan izena emateko epea zabalik dago

Afariketan programarako zein Jazinto Olabeko ludotekarako aurrematrikula egiteko aukera egongo da astelehenera arte, www.astixa.eus webgunean. Behin betiko matrikula, berriz, Afariketaren kasuan Arrateko Andra Mari ikastetxean eta Tiburtzio Anituako lokalean egin ahal izango da, urriaren 5ean, 16:00etatik 18:00etara; edo In-

dianokua gaztelekuan, urriaren 5etik 7ra, 10:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 18:00etara. Eta ludotekaren kasuan, Jazinto Olaben egin ahal izango da, urriaren 5etik 7ra, 10:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 18:00etara. Afariketan LHko 1., 2. eta 3. mailakoentzat da eta ludoteka, berriz, 3. mailatik 6. mailara arteko haurrentzat.



The Mood Rings taldeak bere lehen diskoa aurkeztuko du zuzenean Coliseo antzokian

Urriaren 2an 20:30ean hasiko da The Mood Rings talde eibartarraren kontzertua Coliseo antzokian. Rock musika eskaintzen duen taldeak bere lehen diskoa grabatu berri du, Mutrikun, Axular Arizmendiren estudioan eta 60. hamarkadako kutsuko kantuek osatzen dute. Udaleko Kultura sailaren

eskutik izango da emanaldia eta sarrerak 5 euro balio du. Aurretik erosteko aukera egongo da Kutxabank zerbitzuaren bitartez edo, bestela, Coliseoko leihatilan, astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era. Egunean bertan ere ipiniko dituzte salgai, emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago.



Hizkuntza Eskolarako matrikula

Astelehenera arte (irailak 28) egongo da Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialean izena emateko aukera. Bertan eskaintzen dituzten hizkuntzetako bat (euskera, alemana, ingelesa edo frantsesa) ikasi nahi dutenek Internet bidez egin beharko dute matrikula-eskaera eta, horretarako, ezinbestekoa da Ikasgunea plataforman erregistroa egitea (erregistroa egiteko baliozko identifikatzaile bat, NAN, AIZ edo HNA, helbide elektronikoa eta pasahitza besterik ez dira behar). Argibide gehiago nahi izanez gero Interneten begiratu daiteke, eskolaren web orrian (<https://eoeibarheo.hezkuntza.net/>) edo, bestela, 943 899 275 telefono zenbakira deitu edo eoeibarheo@gmail.com helbidera idatzi.

Abian da Beldur Barik lehiaketa

Emakundek bultzatuta eta eskal erakunde guztien laguntzarekin, 11 urtez gazteen artean errespetua, berdintasuna eta indarkeria sexistaren prebentziarako jarrerak sustatzen daramatza Beldur Barik programak eta, urteroko martxan, horren inguruko lehiaketa antolatuta dute aurten ere. Lehiaketa 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta programaren jarrera ikusarazten duten ikus-entzunezko lanak saritzen ditu. Edizio honetan ikus-entzunezko lanak bakarrik aurkeztu ahal izango dira, eta epea azaroaren 5era arte egongo da zabalik. Lehiaketari buruzko informazio guztia www.beldurbarik.eus helbidean dago.



Musikaz lagundutako bertsoak

Barixaku arratsaldeko ekaitzak ez zituen beldurtu Hanka-motxak bertso-eskolakoak eta, hasierako asmoari jarraituz, Txaltxa Zelaian egin zuten bertso-saio musikatua. Urtero egin ohi den saioak oraingo honetan, baina, oso bestelako irudiak laga dizkigu, entzutera joan zirenek maskara jantzi-ta gozatu baitzuten bertsoekin.



Anexoak badu ikuslerik. PERIKO IRIONDO

3				8		9	
		5		9			8
			5 2		3 6		
8 3					5		
	5		6	1		3	
		6				2 9	
	2 4			1 5			
5			3			6	
	9		2				4

	6 8	2 4					
				7	2		5
					6		9
4 8			9				6
			7		4		
5				8			3 4
7		1					
3		6 5					
				1 3	5 2		

soluzioa

9	2	4	1	5	6	3	8
3	6	5	2	9	8	7	1
8	3	5	2	6	1	3	4
5	6	1	3	2	9	8	7
4	8	7	4	9	6	3	5
2	9	6	1	3	4	5	8
1	5	6	3	2	9	8	7
6	3	8	7	1	3	4	5
7	1	3	4	5	8	2	9
8	7	1	3	4	5	6	2

SUDOKUAK

soluzioa

6	8	2	4	9	7	5	3
3	5	7	1	2	4	6	8
4	8	9	6	3	5	2	7
7	1	3	4	5	6	2	9
5	6	8	9	7	1	3	4
2	9	6	1	3	4	5	8
1	5	6	3	2	9	8	7
8	3	5	2	6	1	3	4
9	2	4	1	5	6	3	8
6	3	8	7	1	3	4	5


LABIRINTOIA



MAILAZ MAILA

Hizki bakar bat aldatuta hamar urratsetan iritsiko zara Rabatetik Dakarrera.

1. Marokoko hiriburua
2. Euskal herrialdea
3. Lasaia, nasaia
4. Barkamena eskatzeko
5. Kaltzio oxidoa, kisua
6. Txori bidalaria
7. Emakume izena
8. Edari bizia
9. Ahariaren emea
10. Darama
11. Senegalgo hiriburua



Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Farmaziak

BARIXAKUA 25

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19))

ZAPATUA 26

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

DOMEKA 27

EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

ASTELEHENA 28

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

MARTITZENA 29

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

EGUAZTENA 30

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

EGUENA 1

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

BARIXAKUA 2

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2020an,

Barandela (Ziriako Agirre, 4)

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Manolo Imedio Chaparro.** 72 urte. 2020-9-17.
- **Petra Arriaga Arrillaga.** 97 urte. 2020-9-20.
- **Carmen Guenetxea Arriaga.** 93 urte. 2020-9-20.
- **Felisa Areitioaurtena Garitaonaindia.** 96 urte. 2020-9-20.
- **Javier Arriaga Agirregomezkorta.** 67 urte. 2020-9-21.

Jaiotakoak

- **Ane Agirrezaldegia Saez de Urturi.** 2020-9-15.
- **Izar Loidi Revuelta.** 2020-9-16.



ek!

**ESKELAK,
URTEURRENAK
ESKERTZAK...
jartzeko:**

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus





OSWALDO GABILONDO IÑARRAIRAEGUI

II. URTEURRENA: 2018-09-27

"Arrateko Amak handik lagundu gaitzala egun batean Zeru berberak hemen etxe berak bildu gintuenok han ere batzera"

Bere aldeko MEZA egingo da irailaren 27an, 12:00etan, San Andres parrokian



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zorion-agurrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurrez hartuko

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **PELLO**!!
Gure etxeko txiki haundixak honezkero 6 urte potolo beteko ditdu eguaztenian!! Musu erraldoi bat danon eta, batez be, Txominen partez.



Zorionak, **KOIKILLI**!, martitzenian 7 urte beteko dozuz-eta. Patxo potolua etxekuen eta, batez be, Artzairen partez.



Zorionak **JAREtxo**!
Gure etxeko trumoitxuak 3 urtetxo beteko ditdu domekan. Musu bat danon eta, batez be, Maddiren partez.



Zorionak, **ARRATE**, gure neska haundi, 10 urte bete dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Abuztuaren 25an, jaixo zan **UNAI** Milikua Berrizbeitia. Ongi etorri gure famelixara. Patxo potolua lehengusu Jonen partez. Eta zorionak guraso Oier eta Aneri.



Zorionak, **ELENE**, hillaren 27xan 6 urte beteko dozuz-eta! Musu haundi-haundi bat gure printzesari, famelixa guztiaren eta, batez be, Juneren partez.



Zorionak, **AIUR**! Gaur urtetxua betetzen dozu-eta! Patxo bat famelixa guztiaren eta, batez be, zure arreba Maddi-ren partez!



Zorionak, **NOA** Lopez Amas, bixar 7 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, zure anaixa Luka eta Danel eta Aner lehengusuen partez.



Zorionak, **JONE**, astelehenian 9 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!!!

**ETXEKOEN
ZORION-AGURRAK
bidaltzeko:**

publizitatea@etakitto.eus



Zorionak, **NOAH** eta **EVA**!! Gaur 3 urte betetzen dozue-eta! Musu pillua, printzesak! Zuen famelixen partez!!



Zorionak, **MIREN**, zure 9. urtebetetziagaittik. Musu potoluak etxeko danon partez.



Zorionak, **GAIZKA** eta **ANE**, bixar zuen jaunartzia ospatuko dozue-eta. Musu haundi bana etxekuen partez.

ezagutzen dituzu gure sare sozialak?

etakitto.eus

Facebook, Twitter, YouTube, Instagram gaztekitto

etakitto.eus

Iragarki laburrak


688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

Iragarki laburrak ez ditugu bulegoan aurrez-aurre hartuko

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisu berria salgai Urkizun. 2 logela, egongela, sukaldia eta 2 bainugela. Guztiz jantzia, bizitzera sartzeko prest. Ikusteko arazorik ez. Tel. 666927559.

1.2. Errentan

- Neska euskaldunak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 646369330.
- Pisua alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Guztiz berriztuta. Bikoteentzako aproposa. Kanpora begira eta argitsua. Tel. 637587823.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256.

3.2. Errentan

- Garajea hartuko nuke alokairuan San saburu, Txaltxa Zelai edo Urki inguruan. Tel. 645007388. Jaxone.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak (etxeak, bulegoak) egiteko. Eusko Jaurritzaren titularekin. 7 urteko esperientzia. Tel. 603514985.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta tabernetan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 602825740.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 656826860.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631759107.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 610668183.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako: tailerrean lan egin, garbiketarak... Tel. 722531998.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 612418183.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 695074117.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (jendea euren etxeetan aratzeko titularekin) eta garbiketarak egiteko. Urtetako esperientzia. Tel. 617610706. Isabel.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Externa eta orduka. Tel. 642505360.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 610067042.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 688735551.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Goizeko 10:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte. Tel. 663530302.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Goizeko 10:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte. Tel. 635802382.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632642320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631836738.
- Neska eibartarra (LHko graduatua, ingelesez) eskaintzen da umeak goizez zaintzeko (eskolara eraman, etxean lagundu...). Esperientziarekin. 625539584.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604120104.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 642505360.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 658398474.
- Emakume eibartarra eta euskalduna eskaintzen da menpekotasun egoeran daudenei edozein lanetan laguntzeko. Urte askotako esperientzia. Tituluduna. Tel. 667376212.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 602-842219.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta beste edozein motako lanak egiteko. Tel. 602-626166.
- Eibarko neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 610-395225.
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 657-155078.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 612-206409.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-292668.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernetan lan egiteko. Goizez, gauz eta asteburuetan. Tel. 633-556486. Victor.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Orduka. esperientzia. Tel. 632-415374.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 610-668183.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldian laguntzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 602-047812.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-014952.

4.2. Langile bila


- Laguntzaileak, higienistak eta dentistak behar dira Eibarko hortz-klinika batean. Tel. 943700082.
- Langilea behar da Eibarko hortz-klinika batean hortz-higienista bezala jarduteko. Berehala hasteko. Bidali kurrikuluma: hortzclinika.06@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Neska euskalduna eskaintzen da klase partikular pertsonalizatuak emateko (Matematika, Fisika, Marrazketa...). Urteetako esperientzia. Tel. 688678199.
- DBH eta Batxilergo klase partikular ematen dira, edozein arlotan. 3 laguneko taldeetan edo banaka, baita online ere. Tel. 615708043.

- Ingeles filologo elebidunak (11 urte Erresuma Batuan) ingelesezko klaseak ematen ditu. Ume eta helduentzako maila guztiak, kasu bakoitzera egokitutako ikas-erremintekin. Tel. 617265575. Avelina.
- Euskarazko klaseak ematen dira. Perfiletarako prestakuntza (IVAP, HABE...) eta umeentzako eskolako errefortzua. Tel. 620608065.
- Klase partikularak ematen dira: LH, DBH eta Batxilergoak. Edozein materia. Presentzialak eta on-line. Tel. 678-937827.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularak ematen dira DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4 laguneko taldeak gehienez. Gainditu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945..
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab...-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.


688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure bizitza berriaren
**erdigunean
gaude**

ARRATE HOMES • EIBAR

Etxebizitza eksklusiboak
Eibarren bihotzean

- Garajea eta trastelekua
- Balio anitzeko gela sukaldearekin
- Gimnasioa
- Errebal plazaren ondoan



• **900 11 00 22** •
neinorhomes.com

LEKU PAREGABEAN BIZI ZAITEZ

Neinor Store: Bidebarrieta, 6 - Eibar

MU
GI
MEN
DU

Talde berriak goizez eta arratsaldez

SOR
MEN

HASI DANTZAN

Betidanik dantza egitea nahi izan duzu? Arrazoi ezberdinengatik ez zara ausartu praktikatzera? Hemen dago zuretzako lekua!

ANTZEZPENA
Helduak eta umeak



LUZAKETAK

Pilates eta dantza ariketen bitartez, gure gorputzaren jarrera eta maigutasuna landuko ditugu soinu eta erritmo desberdinak erabiliz.

BREAK DANCE



DANTZA FITNESS



ACRO BREAK
13 urtetik aurrera



GU
NE
A

KAXA

2 mó/
progresibo, erreflexuen
aurkako lenteekin **229€**



8.PS.175/13.LLG

2020/01/23/18 arte bitartean. Ekin da beste promozio batzuetan metodo.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   